

TXOSTENA:

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenten historia eta bilakaera

Periko Pérez Arróspide

Filosofia eta Letretan lizentziaduna da. 1976an Laneko Segurtasun eta Higiene Institutuan sartu zen eta, 1980an, Droga-mendetasunen Koordinazio Zentroko kolaboratzaile izatera pasa zen. 1986 eta 1990 bitartean, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizateko Zuzendari izan zen eta, 1990 eta 1994 bitartean, Droga-mendetasunen Zuzendari Nagusia. 1994 eta 2009 urte bitartean, Gazteentzako Politiken Aholkularitzako eta Euskadiko Plan Gazteko lanpostuak bete ditu. Eta, azken data horretatik, hirugarren sektoreari buruzko Osasungintzako aholkulari gisa jarduten du lankidetzan.

José Manuel Muñoz

Pobrezia eta esklusioaren kontrako Planaren arduraduna. Urte batzuk enpresa pribatuan lan egin ondoren Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako Departamentuko Gizarte Ongizate zuzendaritzara doa Pobreziaren aurkako Plan Integralaren Kudeaketa Unitatearen arduradun gisa. Jaurlaritzan lanean jardun den urte guztietan Pobreziaren aurkako plangintzaren baitan garatu zitezkeen diru sarrerak bermatzeko neurriak garatzen pasa ditu.

Gizarteratzeko Euskal Kontseiluren eta Inklusioaren Erakundeentzako Euskal Batzordearen Idazkaria izan da eta Erkidegoek eta Gizarte Zerbitzuetako ministeritzak antolatutako hainbat lankidetzarako bilera teknikoetan parte hartu du, batez ere gutxieneko errentak eta etxerik gabeko pertsonen inguruko gaietan.

Luis Sanzo

Luis Sanzo Soziologian Lizentziaduna da (Madrilgo Complutense Unibertsitatea) eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Alorreko arduraduna da; 1981az geroztik egiten du erakunde horretan. Ildo horretan, bere zeregin nagusietako bat Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta zuzentzea, diseinatzea eta analizatzea da. Pobrezia neurtzeko eragiketa estatistiko horrek tradizio historiko luzea du Europan. Luis Sanzok diru-sarrera minimoak bermatzeko euskal sistema diseinatzeko parte hartu du. 1980ko hamarkadaren erdialdean, bere ekarpena garrantzitsua izan zen Eusko Jaurlaritzaren diru-sarrerak bermatzeko lehen programarako (Familiako Gutxieneko Diru-sarrera deritzona). Aurretiazko ikerketa soziologikoak zuzendu zituen eta Pobreziaren aurkako programaren arau-diseinuan parte hartu zuen. Ondoren, EAEn bazterkeriaren aurka borrokatzeko araudi orokorraren erreforma prestatu zuen Batzorde Teknikoko arduraduna izan zen 1998an, enplegua sustatzeko programena barne. Halaber, Luis Sanzok lan desberdinetan aztertu du Espainian edo EAEn Oinarrizko Errenta unibertsaleko eredu baterantz aurrera egiteko aukera. Batzar eta hitzaldietan aurkeztu diren nahiz aldizkari eta egunkarietan argitaratu diren lan ugariaren egile da.

TXOSTENA:

D.B.E aren Ikuspegia eta erronkak

Juan María Aburto

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburua da. Zuzenbidean Lizentziatua eta Bizkaiko Foru Aldundian funtzionarioa.

Hainbat kargu instituzional izan ditu: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo saileko Zerbitzuetako zuzendaria izan zen

(1991-1994). Bizkaiko Foru Aldundiko Araubide Juridiko eta Funtzio Publikoko Zuzendaria (1994-2003) Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintzako Foru Diputatua (2003-2011) eta Bizkaiko Foru Aldundiko Presidentziako Foru Diputatu eta Ahdun Nagusiaren bozeramailea (2011- 2012).

TXOSTENA:
Diru Sarrerak Bermatzeko Errentak ikusmolde konparatuan

Miguel Laparra Navarro

Soziologian doktorea da eta, une honetan, Berdintasunerako eta Gizarte Integraziorako Ikerketa Katedraren zuzendaria da. Warwick Institute of Employment Research, Niederhein University of Applied Sciences, FLACSO-Quito eta Buenos Airesko Unibertsitatean egonaldiak egin ditu eta Espainiako zenbait unibertsitatetako masterretan lankidetzan jarduten du. Azken urteetan, bere ikerketak gizarte-bazterkeriaren, immigrazioaren, ijito-komunitatearen, lan-ezgonkortasunaren, integrazio-politiken, gizarte-zerbitzuetako lehen mailako arretaren eta ekonomia-bidezko gizarteratzearen ildoetan garatu ditu.

Zenbait autonomia-erkidegotan errenta minimoko programak martxan jartzeko eta ebaluatzeko prozesuetan parte hartu du, baita Nafarroako Gobernuaren (1999an argitaratua) eta Madrilgo autonomia-erkidegoaren (2003an argitaratua) *Gizarte Bazterkeriaren aurkako Planaren* idazketan ere, orobat *Nafarroako Biztanleria Etorkina Gizarteratzeko Planaren* idazketan (2002an argitaratua).

Manuel Aguilar Hendrickson

Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea da eta gizarte-politikei loturiko ikasgaiak irakasten ditu. Gradu osteko ikasketetan lankidetzan dihardu, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Granadako Unibertsitatean eta Pompeu Fabra Unibertsitatean.

Alter ikerketa-taldearekin (lehen, gizarte-bazterkeriari buruzko ikerketa-taldea) honako gai hauetan ikertu du: immigrazioaren esparruak, pobrezia eta gizarte-

Espainian diru-sarrera minimoak bermatzeko sistemari buruzko bere azken lana Círculo Cívico de Opinión Elkartearen 10. koadernoan argitaratu da: *Guztiontzako diru-sarrera minimoak bermatzea: gizarte-kohesioa mantentzeko eta giza kapitala kontserbatzeko beharrezko erreforma*.

Bere azken liburuen artean daude, besteak beste, *Crisis y Fractura social en Europa* (2012), *Diagnóstico social de la comunidad gitana en España* (2011), *El primer impacto de la crisis en la cohesión social en España* (2010), *Inmigración y política social* (2009), *La exclusión social en España* (2009), *La construcción del empleo precario* (2007). Gaur egun krisiak gizarte-sektore ahulenetan duen inpaktua aztertzen egiten du lan, toki mailan (Berdintasunerako eta Gizarte Integraziorako Ikerketa Zentroa), Estatu mailan (Foessa Fundazioa) eta nazioartean (Europako Batzordea), baita immigrazioaren eta diskriminazioari buruzko ikerketetan ere.

bazterkeria; integrazio-politikak eta, bereziki, errenta minimoak; eta gizarte-zerbitzuen ebaluazioa.

Gaur egun bere lana gizarte-zerbitzuen transformazio instituzionalak ikertzean zentratzen du.

Besteak beste, honako liburu hauen egilekide da: *El salario social sudado* (1989) eta *La caña y el pez* (1995), baita zenbait artikulurena eta beste liburu batzuetako hainbat kapitulurena ere.

TXOSTENA:
Gizarte Politikak deslegitimatzeko erak

Luis Enrique Alonso

Ekonomia Zientzietan Lizentziaduna eta Doktorea Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. 1984az geroztik irakaslea da Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Ekonomia Zientzien Fakultateko Soziologia Sailean. Nazioartean ere jardun du irakasle gisa, Londresko Southbank Unibertsitatean, Paris IX (Dauphine) eta Paris I (Laboratoire Georges Friedmann) Unibertsitateetan, Xalapa Unibertsitatean (Veracruz, México) eta Uruguayn.

Soziologia Ekonomikoan eta ekintza kolektiboko eta gizarte-mugimenduetako fenomenoaren analisi eta ikerketa soziologikoan aditua da. Ikerketak zuzendu ditu Europar Batasunaren esparruan (Comett, DG5 programa), ekintza hitzartuak gauzatu ditu Cardiffko Unibertsitatearekin (British Council / Hezkuntza Ministerioa programa) eta proiektu lehiakorrek egin ditu Dgicyt-en, besteak beste. Madrilgo Unibertsitate Autonomoan "Lanari eta herritarrei buruzko

ikerketak" ikerketa-talde egonkorra koordinatzen du (SOC E-O30).

Berrogeita hamar artikulua inguru argitaratu ditu aldizkari espezializatuetan, bai Soziologia-arloko argitalpen zientifiko akademiko nagusietan eta bai ekonomiaren eta merkatu-ikerketaren arlo profesionalean. Era berean, liburu kolektiboetan hogeita hamar kapitulu inguru idatzi ditu. Liburu horietako asko Espainiako soziologia-espezialitate desberdinetako lan nagusiak dira. Zenbait libururen egilekide ere bada, besteak beste, honako hauena: *La mirada cualitativa en Sociología; Trabajo y ciudadanía: estudios sobre la crisis de la sociedad salarial, Trabajo y postmodernidad. El empleo débil; La era del consumo, La crisis de la ciudadanía laboral eta Prácticas económicas y economía de las prácticas*.

MAHAINGURUA:
Diru sarrerak bermatzeko politiken mugak eta ahalmenak

1 Adolfo Alustiza Fernández

Portugalete 1957 Geologian Lizentziatua EPV-EHU. 1983tik funtzionarioa da, bere bizitza profesionala administrazioan burutu du. Herri segurtasunarekin zerikusia duten hainbat kargu izan ditu Durangon, Bilbon, Eusko Jaurlaritzan eta Catalunyako Generalitatean 1983 eta 2002 urteen artean. 2002tik 2012ra Bizkaiko Foru Aldundiarekin izan du lotura (Errepideetako Zuzendaria, Funtzio Publikoko Zuzendaria, Gizarte Laguntzako Foru Institutuko gerentea eta Berrikuntza eta Zerbitzuetako Zuzendaria), 2012ko abendutik Lanbide Euskal enplegu Zerbitzuko Zuzendaria da.

2 Alfonso López Martínez

Filosofia eta Hezkuntza zientzietan Lizentziatua Deustuko Unibertsitatean eta Adminstrazio eta enpresen kudeaketan Diplomatu UNED-en.

Bere ibilbide profesionala 1989tik 2012raino Bilboko Gaztaroa Sartu Elkartean burutu du hainbat eginkizun beteaz: gizarte hezitzailea, hezkuntza arloko arduraduna eta elkarteko zuzendaria. Aldi berean, Gizarteratzeko hainbat enpresen presidentea izan da eta Reaz Euskadi zentruko Idazkaria, Gizateako (Euskadiko Gizarteratze enpresen elkarte) presidentea izan da eta Itun (Equal I iniziatiba komunitarioa) proiektuaren koordinatzailea eta Euskal Herriko ordezkaria Unad-en: Zuzendaritza batzordearen kidea eta baita Batzorde iraunkorra eta Gizarteratze arloko arduraduna.

Azaroaren 2012tik Euskadiko EAPNren koordinatzailea da, baita Batzorde Iraunkorreko kide eta Espainiako EAPNren komite exekutiboaren kide.

3 Igone Virto Carrasco

Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna, Psikologia sailean, Salamancako Unibertsitatea, 1986. Erroak - Sartu Donostia Elkartearen zuzendaria izan da 1994tik gaur egunera arte. Gizarteko esku-hartzearen eremuan lan egin du hogeita bost urtez. Sustapen-taldeko kide (1988) eta SARTU Gizarteratzeko Federazioaren Kudeaketa Taldeko buruetako bat izan da eta, 2011tik, aipatu taldeko Presidente. Gipuzkoako Gizarte Ekimeneko Erakunde Plataformaren (SARGI) sustatzailea (2004-2011) eta Gipuzkoako Gizarte Erakundeak Koordinatzeko SARGI Elkarteko Presidentea izan zen 2011ko apiriletik (elkartearen eraketa juridikoaren datatik) 2014ra arte. EUSKALIT ebaluatzaileen klubeko kidea da.

4 Iñigo Lamarca Iturbe

(Donostia, 1959ko uztailaren 13a). Zuzenbidean lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean. 1984 eta 1994 urteen artean Zuzenbide Konstituzionaleko irakasle izan zen, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean. Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbidearen arloan zenbait ikerketa-lan egin zituen. 1994ko maiatzean, Gipuzkoako Batzar Nagusietako (probintzia-parlamentua) abokatu-plaza bete zuen. Orientazio homosexuala eta identitate transexuala duten pertsonen eskubideak defenditzen egin duen lana azpimarragarria da. 1997az geroztik, eta Ararteko gisa izendatu bitartean, Gehitu Elkarteko presidente izan zen (EAEko gay eta lesbianen Elkartea). Era berean, zenbait hedabidetako ohiko kolaboratzaile eta artikulugile izan da. 1999an argitaratu zen eta 2009ko maiatzean gaztelaniara eta katalanera itzuli zen "Gay nauzu" liburuaren egilea da. 2004ko ekainaren 18an Ararteko gisa aukeratu zuten % 90az gaindiko gehiengoarekin, eta antzeko gehiengoarekin berraukeratu zuten 2009ko urriaren 8an. Kargu horretan zenbait lan-esparru sortzen lan egin du, gizarteko talde baztertu eta ahulenei arreta emateko, orobat politika publikoen xede diren taldeei (adindunak, emakumeak, haurrak eta nerabeak) arreta eskaintzeko.

MAHAINGURUA:

Etorkizunerako perspektiba: hobekuntzarako bidea hartu edo modeloa agortu da?

1 Arantza Orbegozo

Psikologian lizentziaduna. Eusko Jaurlaritzan lan egiten du 1999az geroztik, lanpostu desberdinetan, eta 2001az geroztik, beti izan du harremana gizarte-zerbitzuekin. Prestazio ekonomikoetan espezializatuta dago, batez ere, Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan. Oinarritzko gizarte-langileekin tratatzen dut nagusiki. Haiek arautegia kudeatzeari eta interpretatzeari buruz dituzten zalantzak kontsultatzen dizkidate, baita Eusko Jaurlaritzak laguntza horiek kudeatzeko martxan jarri zuen aplikazio informatikoari buruzko zalantzak ere. Lankide batek "su-itzaltzaile" gisa definitu ninduen, zalantza arraroak daudenean deitzen nautelako, edota lankide —edo zerbitzu— artean eztabaidak daudenean kasuren baten

interpretazioari buruz, edota gizarte-langileak bakarrik dihardutenean lanean eta ez daukatenean beren ezbeharrak norekin banatu.

Aplikazio horrek gizarte-diagnostikoko eta bazterkeria baloratzeko tresnetara eraman ninduen; izan ere, prestazioak kudeatzeko aplikazioek eta aipatu tresnek Gizarte.net ataria elkarbanatzen zuten. Iaz eredu arautuen prestatze-prozesu osoan parte hartu nuen, jatorritzko sistema informatikoa hobekien ezagutzen zuen pertsona nintzelako, ez bazterkeriaren munduan esperientzia handia izateagatik. Egoera honi abantailaren bat aurkitze aldera, esan nezake arloko profesionalak nola pentsatzen eta eztabaidatzen duten, eta nahasten diren, kanpotik ikustea ahalbidetu didala.

2 Imanol Zubero Beaskoetxea

Soziologian doktorea (Deustuko Unibertsitatea, 1991). EHUko irakasle titularra. CIVERSITYko ikertzaile nagusia (<http://civersity.net>). Lanaren Soziologian espezializatuta dago, doktoretza-tesiak zuzendu ditu eta bazterkeriari, gizarte-eskubideei eta enpleguari buruzko zenbait ikerketa gauzatu ditu.

Gai horien inguruan artikulua, liburu-kapituluak eta zenbait liburu argitaratu ditu; besteak beste: *Envejecimiento, empleo y sociedad. Las personas mayores de 45 años y su situación ante el empleo en Euskadi* (Madrid 2002);

El derecho a vivir con dignidad: del pleno empleo al empleo pleno (Madrid 2000); *El trabajo en la sociedad. Manual para una sociología del trabajo* (Bilbao 1998).

Honako aldizkari hauen Erredakzio Kontseiluko edo Aholkularitza Batzordeko kide da: *Sociología del Trabajo*; *Documentación Social*; *Lan Harremanak - Lan Harremanen Aldizkaria*; *Revista Española del Tercer Sector*; *Inguruak-Soziologiaren eta Zientzia Politikoaren Euskal Aldizkaria*. Gaur egun, *Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkarteko Presidentea* da.

3 Joseba Zalakain

Gizarte eta Informazio Zientzietan lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean (1991). Joseba Zalakainek Egia Careaga Fundazioaren SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroan lan egiten du 1996az geroztik eta zentro horren zuzendaria da 2007tik. SIISen barruan, pobrezari eta bazterkeriari, mendetasunari, zahartzeari, minusbaliotasunari edo droga-mendetasunari buruzko zenbait azterketa eta ikerketatan parte hartu du. Arlo horietan, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa eta Plan Estrategikoa eta Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa

prestatzeaz arduratu da, eta zenbait prospekzio-azterketa egin ditu gizarte-zerbitzuetako gastuari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren txostenei buruz. Pobrezaren eta gizarte-bazterkeriaren arloan, berriki diru-sarrerak bermatzeko politikak aktibatzeari, haur-pobrezari eta etxerik ez duten pertsonen beharrei buruzko azterketetan parte hartu du. SIISeko gainerako taldekideekin batera, zenbait argitalpen espezializatu egiten parte hartzen du, hala nola Zerbitzuan edo Gizarteratuz buletin dokumentala, baita erakunde horren zerbitzu eta produktu dokumentalak prestatzen ere.